

NEGOZIO IDEIA

ZURE INGURUMEN-ERANTZUNKIZUNA SARITZEN DUGU.

Plastikoa murrizteko iraultza munduari oso mesedegarria izan dakioke. Mugimendu honi gehitzeko grina sentitzen baduzu, geure produktua zuretzat eginakoa da. Jendea birziklatzera anima dadin, proiektu hau proposatzen dugu, non birziklatzeagatik deskontuak irabazi ditzakezun. Horrela, planeta zaintzen duzun bitartean dirua aurrezteko aukera izango duzu.



Zertan datza? Denok ezagutzen ditugu birziklatzeko ontzi arruntak. Gure produktua halako ontzia izango da, baina aldaketa batzuekin. Alde batetik, elkarlanean ari garen supermerkatuen atarian topatuko duzu, eta bestetik, supermerkatu horretan erabiltzeko deskontuak jasoko dituzu. Plastikozko ontzien birziklapenean zentratuko gara.

Orain azalduko dugun eran erabiliko duzu:

1. Lehenik eta behin, zauden supermerkatuaren txartela beharrezkoa izango da, deskontuak hor metatuko dira eta. Txartela makinan ageri egongo den zulo batetik sartu ahalko duzu.
2. Txartela sartu eta gero, plastikoak ontzira botatzera ekiozu. Ontziak sensore bat edukiko du, plastikoak sartzen ote dituzun nabaritzeko.
3. Plastikoa behin botata, zure txartelara deskontuak bidaliko dira, zenbat plastiko birziklatu dituzun arabera izango direnak.